

Altzaren Historia horma-irudia / Mural sobre la Historia de Altza



Nexgraff-en kronika koloretsua Altza[-ren Historia] pasealekuan

Gure eguneroko espazio batean 80 metroko historia berria ageri da. Harri Berri haur-eskolaren ondoan dago, Altza pasealekuan, "Altzaren Historia" pasealekuan. Nexgraff kale artistak pintzelarekin margotutako kronologia hau horma bateko dekorazio hutsa baino gehiago da; gure erroen, gure nortasunaren eta gure bidaia kolektiboaren isla ere bada.

Una historia en color de Nexgraff en el paseo [de la Historia] de Altza

En uno de nuestros espacios cotidianos aparece una nueva historia de 80 metros. Está junto a la escuela infantil Harri Berri, en el paseo de Altza, en el "paseo de la Historia de Altza". Esta cronología pintada por el artista urbano Nexgraff es más que una simple decoración en una pared; es también el reflejo de nuestras raíces, nuestra identidad y nuestro viaje colectivo.

Iraganetik etorkizunera: sei aro, kontakizun bat



Del pasado al futuro: seis épocas, una narración

Lehen aztarnak: Aitzetako Txabala trikuharria

Arroketan eta harrietan, gure lurraldeak bere lehen sekretuak erakusten ditu: fosilak, hala nola koralak Txoritokietan eta marrazo ornoak eta hortz-punta Buenavistan. Ametzagainako Paleolitoko lehen harri-tresnak eta Txoritokietako megalitoak gure historiaren lehen aztarnak dira. Ordurako, gure arbasoek lur hau bizileku bihurtu zuten.

Las primeras huellas: El dolmen de Aitzetako Txabala

En las rocas y piedras, nuestro territorio muestra sus primeros secretos: fósiles, como corales en Txoritokieta o las vértebras y dientes de tiburón en Buenavista. Las primeras herramientas de piedra del Paleolítico de Ametzagaina y los megalitos de Txoritokieta son las primeras huellas de nuestra historia. Ya entonces, nuestros antepasados convirtieron esta tierra en su hogar.

Barduliarrak eta baskoiak: Irulegiko Eskua eta *Sol Invictus*

Ez daukagu erromatar garaiko daturik Altzan. Iturri klasikoek barduliarrak eta baskoiak aipatzen dituzte. Lehenengoetatik, ebidentzia arkelogikoak daude Santiagomendin, Urgullen, Zarautzen eta Getarian. Bigarrenei dagokienez, Lezon, Oiartzunen eta, batez ere, Oiasso-Irunen. Aiako Harriko meategietatik hurbil eta Iruñearekin galtzada batez lotuta, baskoien portu-hiria izan zen. Irulegiko Eskuak berriki adierazi duen bezala, beren hizkuntzan idazten zuten baskoi haiek.

Várdulos y vascones: La Mano de Irulegi y *Sol Invictus*

No disponemos de datos de época romana en Altza. Las fuentes clásicas hablan de várdulos y vascones. De los primeros, hay evidencias arqueológicas en Santiagomendi, Urgull, Zarautz y Getaria. De los segundos, en Lezo, Oiartzun y, sobre todo, en Oiasso-Irun. Próxima a las minas de Peñas de Aia y unida con Iruñea-Pamplona con una calzada, fue la ciudad portuaria de los vascones, unos vascones que, como la Mano de Irulegi ha puesto de manifiesto recientemente, escribían en su lengua.



Altzaren eta altzatarren historiaren abiapuntua: "aiuntados en el campo de Estibaus"

Altza 1141. urtean agertu zen lehen aldiz idatzizko Historian, berezko jabetza eta arrantza-lekuen aipamenarekin batera. Ondorioz, gure herriak identitate juridikoa eskuratu zuen. Kontzejuak, 1390. urtean, Estibaus zelaian bildurik, San Martzial eliza eraikitzeko baimena eskatu zuen. Horrela, sei mendez luzatuko zen gure autogobernu tradizioaren hazia landatu zuten.

El punto de partida de la historia de Altza y los altzataras: "aiuntados en el campo de Estibaus"

Altza apareció por primera vez en la Historia escrita en el año 1141, junto con la mención de propiedades específicas y lugares de pesca. Como consecuencia, nuestro pueblo adquirió identidad jurídica. El concejo, reunido en el campo de Estibaus en 1390, solicitó permiso para construir la iglesia de San Marcial. Así plantaron la semilla de nuestra tradición de autogobierno que se extendería durante seis siglos.



Hazkundera eta krisia: behiak, sagarrak, ontzigintza

Sagardogintza eta ganadua ziren bertako aberastasun iturri nagusiak. Pasaiaiko portuko merkataritzaren eta arrantzaren eraginez, jarduera horiek geroz eta garrantzi handiagoa zuten eta, era berean, ontzigintza sustatu zuten. Altzako biztanleria asko handitu zen. Hala ere, oparotasun garai haren ondoren XVII. mendeko krisia gertatu zen; zorionez, Amerikako artoak eskasia gainditzeko modua eskaini zuen eta,aldi berean, altzatar askok Amerikara jo zuten, bizimodu berria lortzeko asmoz.

Crecimiento y crisis: vacas, manzanas, construcción naval

La sidra y la ganadería eran las principales fuentes de riqueza local. Estas actividades fueron cobrando cada vez más importancia, por la influencia del comercio y la pesca del puerto de Pasaia, y al mismo tiempo impulsaron la construcción naval. La población de Altza creció mucho. Sin embargo, tras ese período de prosperidad se produjo la crisis del siglo XVII; afortunadamente, el maíz americano ofreció una forma de superar la escasez y, al mismo tiempo, muchos altzarras emigraron a América con la intención de conseguir una nueva forma de vida.



Eraldaketa garaia: gerrak eta industrializazioa

Industria-iraultzak eta Frantziako iraultzak gaur egungo gizartearen oinarriak ezarri zituzten, gerra eta sufrimendu askoren gainean. Altzatarrek biziki jasan zituzten azken horiek. Alabaina, garai berriek industrializazioa eta Altza herria izatetik udalerri independente izatera pasatzea ekarri zituzten. Azken gerra zibilaren ondorioz, Altza Donostiara anexionatuta geratu zen, 1940. urtean.

Época de transformación: guerras e industrialización

La revolución industrial y la revolución francesa establecieron las bases de la sociedad actual, sobre muchas guerras y sufrimientos. Los altzarras sufrieron especialmente estos últimos. Sin embargo, los nuevos tiempos trajeron la industrialización y el paso de Altza de ser un pueblo a convertirse en municipio independiente. Como consecuencia de la última guerra civil, Altza quedó anexionada a San Sebastián en 1940.



Gaur egungo Altza: Errotetako jaiak, auzuneak, dorreak

Industrializazioak jatorri askotako jendea erakarri zuen Altzara eta auzune berriak sortu ziren. Antzekoa gertatu zen beste leku askotan, baina leku bakoitzak nortasun propioa dauka, bertan bizi garen pertsonok ematen dioguna. Jaiak dira horien adierazgarri. Antolatzea, elkarrekin ondo pasatzea eta harremanak indartzea, komunitate-espíritu sortzeko. Horra hor jaien helburuetako batzuk.

El Altza actual: fiestas de Roteta, barrios, torres

La industrialización atrajo a Altza gente de orígenes diversos y se crearon nuevos barrios. Lo mismo ocurrió en muchos otros lugares, pero cada lugar tiene su propia personalidad, que le damos las personas que vivimos en él. Las fiestas son representativas de ello. Organizar, pasarlo bien juntos y fortalecer las relaciones, para crear espíritu comunitario. He ahí algunos de los objetivos de las fiestas.



Zergatik da horma-irudi hau hain berezia?

Nexgraff artista ez da gure iraganaren kronika margotzera mugatu. Gure nortasunaren DNA-a islatu du, historian zehar iraun duten balio eta ezaugarriak; autogobernu tradizioetik hasi, itsas eta nekazal kulturatik pasa eta komunitate-espíritu sendoraino.

Egunero eskolara doazen haur txikiek eta gure kaleetatik ibiltzen garen helduok istorio bera partekatzen dugu. Horma-irudi honek gogorarazten digu Altza ez dela soilik toki geografiko bat, baizik eta mendez mende eraikitako komunitate bat.

Hemendik aurrera, Harri Berri eskolaren aurrean geratzen zarenean, hartu denbora pixka bat gure historiaren koloreak behatzeko. Bertan, guztiok garen hori aurkituko duzue: altzatar izatearen harrotasuna.

Horma-irudia Bizarraín euskara elkarteak bultzatuta, Ekialdeko Barrutiaren diru babesarekin eta Casares-Tomasene Kultur Etxearen eta AHM-Altzako Historia Mintegiaren laguntzarekin gauzatu da.

"Gure iraganak gure oraina argitzen du, eta gure orainak gure etorkizuna eraikitzen du".

¿Por qué es tan especial este mural?

El artista Nexgraff no se ha limitado a pintar una crónica de nuestro pasado. Ha reflejado el ADN de nuestra identidad, los valores y características que han perdurado a lo largo de la historia; desde la tradición de autogobierno, pasando por la cultura marítima y agrícola hasta el fuerte espíritu comunitario.

Los niños pequeños que van a la escuela cada día y los adultos que paseamos por nuestras calles compartimos la misma historia. Este mural nos recuerda que Altza no es solo un lugar geográfico, sino una comunidad construida durante siglos.


De ahora en adelante, cuando os paréis frente a la escuela Harri Berri, tomaos un pequeño momento para contemplar los colores de nuestra historia. Allí encontraréis lo que todos somos: el orgullo de ser altzarra.

El mural se ha realizado impulsado por la asociación Bizarraín Euskara Elkarte, con el apoyo económico del Distrito Este y la colaboración de la Casa de Cultura Casares-Tomasene y AHM-Altzako Historia Mintegia.

"Nuestro pasado ilumina nuestro presente, y nuestro presente construye nuestro futuro".



Informazio gehiago hemen



Más información aquí

Arriaga-Serafinak jaiak, 2025-09-28

